# A.M.A. ANDRA MARI ABESBATZA

*Urte Berri on!*

# 1

*Errenteria 2010eko abendua*

**BERRIPAPERA**

## Ongi etorri

Hitz bitan, ongi etorria eman nahi dizuegu A.M.A. Berripapera honetara, Andra Mari Abesbatza familia handia osatzen dugun lagunen albistari honetara. Urtaroekin bat, paperean eta formatu digitalean, lau aldiz iritsiko zaizu A.M.A. Berripapera. Zuretzat eta zurekin.

En dos palabras queremos darle la bienvenida a A.M.A. Berripapera, nuevo canal de comunicación de todas las personas e instituciones que hacemos Andra Mari Abesbatza. Contigo y para ti, cuatro veces al año, en papel y digital.





## SANTA ZEZILIA MUSIKAZALEEN FESTA

Musikak bere bederatziurrena izan du, 2010eko azaroaren 20tik 28ra, Santa Zezilia 28. Zikloaren baitan. Musika zentzu eta baliabide guztietan: organo kontzertuak, bertsolariak eta musika uztartuta, txistulariak, orkestra musika, adin guztietako abesbatzen kantaldiak, abesbatza eta musika banda elkartuta, danborradak eta txarangak… eskaintza ugaria bezain zabala gertatu da musikazaleen festa.

Aurtengoan bat egin dute Andra Mari Abesbatza elkartearen abesbatzak (Andra Mari Abesbatza eta Oinarri, Orereta eta Orereta Txiki abesbatzak eta Musika Tailerra), Errenteria Musikal Orkestra, Errenteria Musika Kultur Elkarteko Banda, Errenteriako Udal Txistulari Taldea eta Errenteriako Txistulariak; eta Xenpelar Bertso Eskola. ERESBIL eta Errenteria Musikal partaide izan dira Andra Mari Abesbatzak antolatutako zikloan eta Errenteriako Udalaren, Eusko Jaurlaritzaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Kutxaren babesa jaso du.

Santa Zeziliaren baitan, organo-musikak leku berezia izan du, hala, Errenteriako eliza-nagusiko organo zaharberrituaren inaugurazioa egin zen. Ramon Angel Ruiz zenaren omenez burutu zen kontzertu nagusia eta Jose Luis Ansorenari Wikipedian, entziklopedia digitalean egin zaion atala aurkeztu zen.

## NEGUKO AGENDA

**Abenduaren 17a**
Orereta-Oinarri - Kursaalean - Gipuzkoako Belenzaleen Elkarteak antolatua

**Abenduaren 18an**
Orereta - Iruñako San Antonio Elizan – Nafarroako Koruen Federazioak antolatua

**Abenduaren 19an**
Orereta – Errenteriako Niessengo Auditorioan – Casas Regionales antolatua

**Abenduaren 22an**
Musika Tailerra-Orereta Txiki-Orereta-Oinarri – Fatimako Elizan – Gabon kontzertua

**Abenduaren 23an**
Oinarri – EITBn – Urte Zahar eguneko programaren grabazioa



**Abenduaren 30ean**
Andra Mari – Iruñeko Baluarten – La Caixak antolatua Mesias partehartzeailea.

**Martxoaren 17 eta 18an**
Andra Mari – BOS 2011-2012. denboraldian, Euskalduna Jauregian - Malherren 3. Sinfonia.


**ANDRA MARI**
Pablo Iglesias, 11, 2º
20100 Errenteria I Gipuzkoa
943 344 750
andramari@coralandramari.com
coralandramari.com




## "EL MESÍAS" DE G. F. HÄNDEL

El 30 de diciembre el Baluarte acogerá la primera edición del "Mesías participativo" en Pamplona. Tomarán parte ocho coros navarros. El Coro Andra Mari ha sido solicitado por la Organización como Coro de escenario; junto a la Orquesta Sinfónica de Navarra y los solistas Claire Debono, Hilary Summers, Joshua Ellicott y David Wilson-Johnson interpretará, bajo la dirección del prestigioso especialista en música barroca, Robert King, esta maravillosa obra.

Como recuerda Basil Lam, "Beethoven dijo, aludiendo a los volúmenes de la edición Arnold que lo consolaban durante su última enfermedad: Aquí está la verdad

La Obra Social Fundación "la Caixa" comenzó hace quince años en Barcelona a organizar el proyecto de conciertos participativos –"constituyen una experiencia única que reúne a cantantes aficionados a la música coral con orquestas, solistas y directores de prestigio internacional en la interpretación de obras emblemáticas del repertorio sinfónico-coral de todos los tiempos" (Obra Social Fundación "La Caixa" > Música > Conciertos participativos)-. Proyecto que nacía con el objetivo de reconocer y estimular la práctica social del canto y de la música que se lleva a cabo desde las asociaciones corales, así como el de promover la cohesión social en el ámbito de la cultura (noticiasdenavarra.com del 12 de noviembre).

## GABON KONTZERTUA KURSAALen



Datorren abenduaren17an, Orereta eta Oinarri abesbatzek erronka garrantzitsua izango dute; izan ere, gure haur eta gazteek Gipuzkoako Belenisten Elkarteak urtero Donostiako Kursaal aretoan antolatzen duen gabon kontzertuan parte hartuko dute.

Imanol Elizasuren zuzendaritzapean eta "Et Incarnatus" orkestrarekin batera, Tomas Aragüések eta Josu Elberdinek emanaldi honetarako bereziki sortu eta moldatu dituzten kantuak eskainiko dituzte. Kontzertu aurretik, Pello Zabala arituko da pregoilari lanetan eta ondoren Andra Mari Abesbatzaren harrobiko taldeek errepertorio zabal bezain erakargarriari ekingo diote. Azaroaren 20 eta 21eko asteburuan kontzertu hori prestatzeko lan berezia egin zuten Barriako aterpetxean Orereta eta Oinarriko abeslariek. Abenduaren 22an, Errenterian parte hartuko dute urteroko gabon kontzertuan eta Kursaalen abestutako ia kantu guztiak eskainiko dituzte berriro, pianoaren laguntzaz oraingo honetan.

## A.M.A.ren FITXA



## ERRENTERIAKO ORGANOA

Errenteriako Andre Mari Donearen Zeruratzearen elizak XVI. mendean eraiki zenetik organoa izan du. Egungoa, Taller de Organería Acitores etxeak 2009. urtean berritua, Donostiako Amezua&Cia tailerrak eraiki zuen, Aquilino Amezuak egina 1892an, haren aitak -Juan Amezuak- 1858an egindakoa ordezkatu zuen. 1931an Amezua&Cia etxeak berritu eta handitu zuen, Leocadio Galdosek zuzendu zituen lanak. Historia luze honetan organoak lapurretak ( 1638. urtean Errenteria hartu zuten frantses soldaduek lapurtu zuten), suntsiketak (1795an Konbentzio gerran) eta berreraiketak izan ditu, baina bere musikak etengabe gozatu gaitu.

**EGIN ZAITEZ BAZKIDE**
**¡HAZTE SOCIO!**



Gurasoek eskainitako ongi-etorria. (2010-07-27)

# HIRUTIK HIRU!!!

Hau da hau, gure gazteek, lortu dutena! Uztailean, Madalena jaietan, Txinako Shaoxing herrian ospatu ziren Munduko Abesbatzen Olinpiadetan Haur, Folklore eta Eliz Musika kategorietan aurkeztu eta sail bakoitzean zilarrezko domina lortu!

"Ez da erraza izan -dio Imanol Elizasuk, Oreretako zuzendariak- egia esanda, oso pozik nago gure neska-mutilek egindakoarekin. Maila oso handia izan da honetan zein beste bi ataletan; ez da txantxetakoa izan mundu osotik etorritako 472 abesbatzekin batera gisa honetako lehiaketan parte hartzea. Hori berez izugarria izan bada, are gehiago parte hartu dugun kantuko hiru lehiaketatan zilarrezko sariarekin etxera itzultzea. Pozik eta harro egoteko arrazoiak ditugu eta nik neuk inork baino gehiago, gazte talde honen buru naizen aldetik."

Andra Mari Abesbatzako gazteak ere gure herriko enbaxadore finak bihurtu dira. Izugarria izan da Shanghaiko Esposizioan, Bilboko hiriaren pabilioian, abestu eta lortutako arrakasta eta baita hunkigarria ere Shanghaiko Euskal Etxean eskainitako emanaldia eta beraiengandik jasotakoa.

Eta gure gazteentzat ahaztezina izan bada Txinako lurralde horietan bizi izandakoa, sentitutakoa eta ikasitakoa, ahaztezina eta biziki hunkigarria izan zen, zuek gurasook, lagunok, senideok eta Andra Mari Abesbatzak eskaini zeniguten ongi-etorria. Benetan mundiala!!!

Imanol Elizasuren hitzetan, "IZUGARRIA izan da bizi izandako guztia. Ez dut hitzik, benetan adierazteko sentitu dudana, duguna. Beno, bat bai: ESKERRIK ASKO, bihotzez, eskerrik asko hau guztia ahalbidetu duzuen guztioi, une zailetan gure ondoan izan zaretenoi eta babesa eskaini diguzuenoi!!!"





*Eskerrik asko Eriz Magoa!*

# ANDRA MARI

La Coral Andra Mari debe demostrar cada temporada que está preparada para resolver con total garantía envites muy complicados.

Acepta retos artísticos destinados a los grandes coros, a los selectos, y aprovecha las oportunidades para confirmar su valía ante auditorios distintos y heterogéneos.

Últimas referencias:

Resolvió brillantemente el desafío de cantar una obra densa y complicada como "La Atlántida" de Manuel de Falla, en Las Palmas y Granada, con la Orquesta Sinfónica de Las Palmas bajo la dirección de su titular Pedro Halffter, que quedó satisfechísimo de los resultados.

La Coral Andra Mari asentó sus reales, iba siendo hora, en el Palacio de Carlos V, maravilloso ámbito pétreo sede de los conciertos sinfónicos del 59 Festival Internacional de Música y Danza de Granada, interpretando en versión concierto Cecilia Valdés de Gonzalo Roig y La Tempranica de Gerónimo Giménez.

Acompañada por la Orquesta Sinfónica de Galicia, rodeada de solistas de primera, y con la batuta amiga del extraordinario director Víctor Pablo Pérez, desplegó toda la fuerza, gracia, brillo y belleza tímbricos exigidos por el maestro Víctor Pablo y por el maestro de casa J. Manuel Tife, que se fundieron en un abrazo mientras el público entusiasmado pedía bises.

El concierto fue retransmitido en directo por RNE-Radio Clásica y la Unión Europea de Radiodifusión (UER), guiado por el profesional José Luis Pérez de Arteaga que comentaba, en sintonía con la crítica musical granadina, que este gran coro merecía repetir visita al Festival.



59. Festival Internacional de Música y Danza de Granada
Argazkia: Carlos Choin

coralandramari.com